



itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria (((41. zk))) Urtarrila 2019

Herriko konposta martxan

Elkarrizketa: Gorka Martinez

Guraso Elkartea: Jolas eta jostailu ez sexistan tailerra

Gaztelekuaren irekiera tailerra

4 1. ale honi dagokio 2019. urteari ongietorria egitea. Ale hau gaiez eta aktualitatez gainezka datorren moduan, aurtengo urtearekin ere halatsu gertatuko denaren susmoa daukagu. Urte erabakiorra izango da emakumeen eta pentsionisten eskubideen borrokan, baita hainbeste urteetako lanarekin irabazitako eskubide sozial eta ekonomikoekin zer gertatzen den ikusteko.

Euskarari Euskaraldiarekin emandako bultzadak zer iraupen izango duen ikusteko unea ere bada, KORRIKA-k gure hizkuntza hauspotzeko bidea egingo du kilometroz kilometro.

Eta horrez gain, hauteskunde garaia ere izango da aurtengoa, eta badakigu honek ere hautsak harrotuko dituela gure eguneroko aktualitatean. Horrez gain, etorkinen egoera eta beste hainbat gai, albiste eta kezka iturri izango ditugu.

Gai guzti hauek gure egunerokoan aktualitate badira ere, gatozen handitik txikira, ITSASONDO 2.0 aldizkariak aztertzen dituen eguneroko kontuetara, hain zuzen ere.

Ale honetako elkarrizketa Gorka Martinez herritarrari egin diogu, garbi dago Gorka perrexil guztietako saltsa dugula. Ez berak, ezta guk ere, ez dugu aspertzeko aukerarik izango, egon ziur horretaz.

Bestetik, herrian beste hainbat ekintza, ekimen eta erronka izango ditugu. Herriko haur eta gazteekin ere lanketa berriari ekin diogu, eta urtean zehar hori zabaltzen joatea da gure asmoa.

Horretaz gain, parte-hartze batzordeak, jubilatua, Arbel-aitz elkarte, guraso elkarte, Kultura batzordea eta beste hainbat eragile etengabe lanean ari dira Itsasondo herri bizi bat izan dadin, ahalik eta kultur eta herri bizitza anitzena eskaintzeko asmotan. Baina lan guzti horrek beste aldean ere erantzuna eta partaidetza ezinbestekoak ditu, aurrerantzean ere lanean jarraitzeko.

Aurten antolatutako San Silbestre lasterketa herriko xumea dugu honen adibide, herriko gazteek antolaturiko ekimen xume eta parte-hartzailea; herria girotu eta arakasta izan zuena.

Goazen txikitik hastera, orokorra ahaztu gabe. Itsasondo hobe bat egin dezagun, mundu hobe eta justuago bat eraikitzeko. Itsasondo 2.0. izan dadila guzti horren lekuko! ■



Aurkibidea

- 03-04. **Udaleko berriak**
- 05. **Haurreskola**
- 06-07. **Eskola**
- 08. **Gazteleku**
- 09. **Jubilatuak**
- 10. **Herri diagnosis**
- 11. **M-8**
- 12. **Guraso elkarte**
- 13. **EH Bildu**
- 14-18. **Elkarrizketa:** Gorka Martinez
- 19. **Informatika:** Youtube eta 13. artikulua
- 20-25. **Hemeroteka**
- 26. **Natura / Errezeta**
- 27. **Euskararen atala**
- 28. **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Mutil koskor bat*

Bi mila eta hemeretzi lehenbiziko alean aldizkaria bete bete dator luze zabalean, itsasondotar guztiontzako aukera paregabe bertako berri nagusienak egokituz paperean gero hizbide biur ditzagun etxean eta kalean (bis)

Udaletxeko egitasmoak nola aurrekontu ugari eskola eta haur eskolako lanak ari eta ari, gazte, nerabe, jubilatuaq tipi-tapa txiki-haundi, Gorka Martinez jendeaurrean bizipenetaz hizlari eta guraso elkartearen kezkak atariz atari.

Ongizatea, informatika, eta euskararen atala hemerrotekan azalduko da eskaintza handiko itzala: gaztaina jana, taloen festa gabon osteko perkala, erakusketa, eta manifa horra zerrenda zabala..., errezeta on bat eskaini eta gorputza senda dezala.

Udaleko berriak

Urte berriari hasiera eman diogu, eta 2019ko lehen alean, aurreko urtean udalean egin diren gaiak azalduko dizkizuegu.

URRIAREN 1EKO UDAL BILKURA

- Itsasondoko Udaleko Euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu zen, 2018-2022 epealdirako. Itsasondoko udalean plan hori aplikatuko da hurrengo lau urteetan. Bestalde, duela gutxi lortu da udalean euskararen Bikain ziurtagiriaren urrezko maila, plan horretako diagnostikoan oinarrituta.
- Errota frontoiaren irisgarritasuna hobetzeko obren lehen ziurtagiria onartu zen, 153640,63 €ko zenbatekoa duena.
- Etxez etxeko zerbitzua arautzeko ordenantzaren aldaketa onartu zen.
- 2017ko Kontu Orokorrak onartu ziren.
- Sasieta Mankomunitateko estatutu berriak onartu ziren.

AZAROAREN 7KO UDAL BILKURA

- Azaroaren 7ko bilkuran, 2019an aplikagarri izango diren ordenantzen tarifak aldatzeko erabakiak hartu ziren.
- Ordenantza guztietan %2,2ko igoera aplikatzea erabaki zen, salbuespen honekin:
 - Ur hornidura zerbitzuko tasei %5eko igoera aplikatzea erabaki zen, zerbitzuaren kostuak sortzen zuen defizita estali ahal izateko.
 - Hondakin bilketa zerbitzuko tasak berrikusi ziren, eta bio-hondakinen bilketaren ondorioz, Udalak Sasieta ordaindu beharko dion zenbatekoa gutxituko denez, 2019rako etxebizitzak urtean hiru zatitan ordaindu beharko duten zenbatekoa 108 € izango da.
- Horrez gain, familia ugarietara ibilgailuen zergan %50eko hoberia ematea erabaki zen. Hoberia jasotzeko eskaria 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko da. Familiak jasotzen dituen diru-sarreraren arabera izango da dirulaguntza.
- Indarrean mantentzen da tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko araudia. Eskaerak ahal den azkarren egitea komeni da, laguntzak eskatzen diren egunetik aurrera aplikatzen direlako.
- Beste zenbait hobari eta salbuespenei buruzko informazioa:
 - Familia ugariak Hirilur Zergaren hoberia eskatu ahal izango dute.
 - Urritasun fisikoak eta mugikortasun arazoak dituztenek Ibilgailuen Gaineko Zergen ordainketan salbuespen eskaria egin ahal izango dute.
 - Laguntza hauei buruzko informazio gehiago, udaleko Gizarte zerbitzuetan eskuratu ahal izango da.

ABENDUAK 17KO UDAL BILKURA

Bilkura honetan 2019ko urteko aurrekontuak onartu ziren. Hau da kapituluetaiko laburpena:

SARREREN AURREKONTUA

Zuzeneko zergak	144.610 €
Zeharkako zergak (obra baimenak...)	2.000 €
Tasa eta bestelako sarrerak	131.040 €
Transferentzia arruntak (errenta interesak)	531.145 €
Ondare sarrerak	14.150 €
Inbentsio errealean besterenganaketa	0 €
Kapital transferentziak	91.054,99 €
Finantza aktiboak	0 €
Finantza pasiboak	0 €
GUZTIRA	914.000 €

GASTUEN AURREKONTUA

Pertsonal gastuak (argiteria, ura, kalef...)	314.457,61 €
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	237.759,19 €
Finantza gastuak	150 €
Transferentzia arruntak (dirulaguntzak elkarteei)	116.548,24 €
Inbentsio errealak	245.084,96 €
Kapital transferentziak	0 €
Finantza aktiboak	0 €
Finantza pasiboak	0 €
GUZTIRA	914.000 €

2019-01-19

659 biztanle
erroldatuta

(11 lagun iaiz jaiotakoak)

Egin nahi diren inbertsio garrantzitsuenak hauek dira:

- Lur sailen erosketarako 30.000 €.
- Urkia auzoan natura eta giza baliabideak izeneko proiektua 22.000 €.
- Murumendiko ingurune naturala eta basogintza berria 60.496 €.
- Herri bideetan berrikuntza obrak 50.000 €.
- Beko-kaleko urbanizazio obrak 15.000 €.
- Frontoiko irisgarritasuna 20.000 €.

BESTEAK

- Errota frontoiaren irisgarritasun obren 2. eta 3. Ziurtagiriak onartu ziren
- 2. ziurtagiriak 108.776 €tako inportea du.
- 3. ziurtagiriak 43.241,50 €tako inportea du.
- ERROTA FRONTOIAREN irisgarritasun likidazioa guztira 305.658,14 € BEZ barne izan da.
- Itsasondoko Hiri Antolaketa planeko INDUSTRIAL SEKTO-REKO aldaketa puntualaren proiektua behin-behineko izaeran onartu da. Orain tramitatutako espedientea Eusko Jaurlaritzako Hirigintza Batzordearen txostena jasotzeko bidali da. Azken txostena jasotzen denean, Foru Aldundira bidali beharko da, behin betiko onarpenaren eskumena, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak duelako. Aldaketa puntuala behin betiko onartu ondoren, Beko-kaleko urbanizazio obrak eta errotonda gauzatzea izango da egin beharrekoa.
- EUSKARA: Itsasondoko udaleko Euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu da, eta hurrengo lau urteetan aplikatuko da. Honekin lortuta, duela gutxi jaso du udalak euskararen Bikain ziurtagiria.

ZENBAIT MOZIO ERE ONARTU ZIREN:

- SARE, Euskal presoan aldeko elkarrean aurkeztutakoa, presoan urrunketa eta espetxe-politikarekiko ezadostasuna adierazten duena.
- ENBA, Euskal Nekazarien Batasunak, aurkeztutako mozioa tratatu ondoren, Enbak aurkeztutako mozioaren ordez, Udalak planteatutako gai horrekiko, mozio alternatiboa onartu zen.
- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, Foru Aldundiari eskatuz baso eremu publikoetan interes orokorrari eta natur baliabideen zaintzari erantzungo dion kudeaketa eredua bideratzeko.

Alkate dekretuak

- Iraileko fakturen zerrenda onartu da, 83.781,44 €koa.
- Urriko fakturen zerrenda onartu da, 40.033,90 €koa.
- Azaroko fakturen zerrenda onartu da, 20.768,40 €koa.

- Abenduko fakturen zerrenda onartu da, 46.259,84 €koa.
- Udaletxeko kulturgunea eta lokalak erabiltzeko herriko elkarte, norbanako eta eragilean partetik 28 eskari izan dira.
- 2018ko hirugarren Hiruhilekoko ur errolda onartu da 12.915,70 €ko zenbatekoarekin.
- 2018ko hirugarren lauhileko hondakin bilketako errolda onartu da 17.594,4 €ko zenbatekoarekin.
- Estolderiako, aparkalekuko eta musika eskolako erroldak ere onartu dira, eta kobrantza egin da.
- Azken hiruhilekoan larrialdi laguntzak onartu dira 167,26 €ko zenbatekoarekin.
- Kreditu aldaketa espedienteak onartu dira 66.484 €ko zenbatekoarekin.
- Obra txikien hiru lizentzia eman dira.
- Datuak babesteko Foru Aldundiko kontratazio sistemak eginiko eskaintza dela-eta, atxikitzea erabaki da.
- Hilerrian kontzesioak emateko bost espediente onartu dira.
- Herri-bideetatik zehar egurrak garraiatzeko bi baimen eman dira.
- Eraikinen ikuskaritza teknikoaren hiru espediente tramitatu dira.

Dirulaguntzak:

Azken hiruhilabetean honako dirulaguntzak eskatu eta lortu dira:

- Liburutegiko laguntza irakurzaletasuna sustatzeko, 750 €koa.
- Liburutegiko laguntza liburu multzo berriak erosteko, 414 €koa.
- Liburutegian teknologi berriak ezartzeko laguntza, 1.184 €koa.
- Sendagile kontsulta margotzeko laguntza 1.367,38 €koa.
- Basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza, 18.846 €koa.
- Urtero bezala, aurtun ere Osakidetza 6.875 €ko ekarpena egin du Itsasondoko anbulatorioko mantenu gastuak kubritzeko. Aportazio hori Itsasondoko anbulatorioko txartela dutenen araberakoa izaten da. Gure kasuan 764 dira, Itsasondo, Arama eta Altzagakoak barne.

ESKATUTAKOAK

- Eusko Jaurlaritzari, Murumendiko Lotura Eremu eta Korridoreko jarraitasun ekologikoa hobetzeko ekimenak izeneko proiektua gauzatzeko.
- Goimen elkarreari, Herri bizitza izeneko programan, herri antolatutako zenbait kultur ekintza finantzatzeko. ■

Haurreskola haziz doa

**Urte berri on Itsasondoko Haurreskolatik!
Aurten ere Mari Domingi eta Olentzero
gurean izan dira. Eskerrik asko, bikote!**

Azken urteetan haurreskolan gela bakar bat egon da, taldekatze gela. Bertan, 0 eta 2 urte arteko haur guztiak hartzen ziren. Baina aurten, urtarrileko haur berrien etorrerarekin batera, bigarren gela irekitzeko aukera izan dugu, haurrak adinaren arabera bi taldetan sailkatuta. 0-1 gela, lau haurtxoekin eta 1-2koa, bederatzirekin. Egoera honek hirugarren hezitzaile baten etorrera ekarri du. Beraz, haurreskolan, hamahiru haur eta hiru hezitzaile egongo gara.

Gure egungo egoeraren berri eman ondoren, egokia iruditzen zaigu bertako funtzionamendua gogoraraztea, oso ezberdinak baitira 0-1 eta 1-2 geletan ematen diren antolaketak, jarduerak eta giroa.

0-1 gelako haurrak lasaitasun handia behar du, babesa eta segurtasuna sentitzeko. Horrek bere gorputzarekiko kontzientzia hartzeko aukera emango dio, ondoren mugimenduaren garapena prestatzea ahalbidetuz. Bere gorputzaren gaitasunak ezagutzetik, oinez ibiltzen ikasteraino ibilbide zirrargarria biziko du, pausoz pauso eta erronka guztiak gaindituz.

Horretarako, hezitzaileak haurraren konfiantza izango du, eta haurrak berak egingo dituen aurrerapausoei ez die aurre hartuko; haurrari izaten eta egiten utziko dio. Segurtasuna, babesa eta aitortza eskaintzeaz gain bere oinarritzko behar fisiologikoak asetzea bermatuko du (atsedena, jana eta higiena). Hori ezinbesteko baldintzak dira bere mugimenduaren konkistarako behar duen motibazioa pizteko, eta bere mugimendu autonomoan erabat murgiltzeko.

Zein polita den haurrak bere erronkak gainditzeko egiten dituen saiakera eta borrorak ikustea! Animo, txiki! Lortuko duzu!

Nahiz eta batzuetan frustrazioa sentitu, haserretu eta negar egin, ezin duelako bere nahia bete (jostailu bat hartu, ahoz gora jarri...) beti iristen da haurrak hura lortuko duen eguna. Guztion gozame nerako momentua izaten da.



1-2 gelako haurrak, berriz, erabat murgildurik daude jarduera eta mugimendu autonomoan. Haurreskolako materialekin esperimentatzen, esploratzen eta espazio berriak deskubritzen pasatzen dituzte orduak. Indar eta energiakz beteriko haurrak izaten dira, eta espazio aldaketak oso gustuko dituzte; alde batetik bestera arrastaka, korrika, saltoka ibiltzen dira, materialak batetik bestera garrantiatuz. Momentu hauetan kanpoko espazioak garrantzi berezia hartzen du. Horregatik saiatzen gara garrantzia ematen ataria egoera onean izateari eta bertako materialaren antolakuntzari. Bertan, jardun ezberdinen ondorioz oso lorpen interesgarriak ikus ditzakegu haurraren.

Beraien arteko harremanetan, lehen urratsak adin honetan ematen dituzte; bata bestearen ondoan eserita, begirada eta keinuen bidez... Nolako harremanak sortzen dituzten jostailu baten inguruan! Oso momentu politak izaten ditugu! Beti gure begiradapean bada ere, liluratu egiten gaitu liskarrak beraien kabuz konpontzeko duten ahalmenak. Haurrak nola hazten diren eta beraien baliabideak nola erabiltzen dituzten ikusiz gozatzeko dugu. Aupa zuek!

Sentitu, pentsatu eta ekin! ■

Euskaraldia

Eskolan Euskaraldian parte hartu nahi izan genuen, eta ekintza asko egin genituen.



Euskaraldia 11 egunetan euskaraz hitz egiteko ekintza bat izan da (azaroaren 23tik abenduaren 3ra). Horretarako, bi rol asmatu dira, Belarriprest eta Ahobizi.

Rol banaketa

Rol banaketan denok bildu ginen, eta Ahobiziak eta Belarriprestak banatu genituen.



Hauetako izan ziren egin genituen ekintzak:

- Rolak banatu (Ahobizi eta Belarriprest)
- Dantza egin
- Dantza entseiatu
- Txistek kontatu
- Karaokea
- Altxorraren bila
- Hamaiketakoa
- Dantza egin



Txisteak

Lehen Hezkuntzako guztiok elkartu ginen, eta euskarazko txisteak kontatu genituen. Batzuk oso onak ziren, baina besteak...

Karaokea

Pantaila handian karaokea jarri genuen, eta taldeetan abestiak abestu genituen.

Altxorraren bila

Goizean denok bildu ginen taldeak egiteko. Gero, aterpean taldeka jarri ginen; eta, musika entzundakoan, talde guztiak hasi ginen martxan. Altxorraren bilan hainbat proba zeuden. Azkenean, talde guztiak irabazi genuen altxorra. Altxorra hamaiketako eder bat izan zen: patatak, gozokiak...■



Karaokean abesten mundialak gara.

EGILEAK: 3. zikloa

Gaztelekuaren irekiera 2018

Ziurrenik berria entzuna izango duzue...
GAZTELEKUA BERRIZ MARTXAN DA!
2018ko urriaren 19an hasi ginen proiektu honekin, betiko irudiaren atzean ideia berritzaileekin eta ekintzaileekin gatzotsasondoko gazteria astintzera.



Ostiralero, 17:00etatik 20:00etara biltzen gara, garai batean eskola zaharra izan zen eraikinean. Bertara, 12-18 urte bitarteko dozena bat kidez osatutako taldea gurturaten da. Horrez gain, herriko hiru hezitzaileek ixten dute taldea. Hezitzaileak, txandaka aritzen dira, horrela, ostiralero bi kideek hartzen dute aisialdiaren lekukoa.

Hasieratik, gure helburua hainbat ekintza egitea izan da. Horretarako, begirale bakoitzari rol bat jarri diogu: eskulan eta jolas kooperatiboak, kanpo-irteerak eta kontzientzia-zioa. Horiez gain, hilean behin, begirale eta gazteen arteko harremana sendotzeko, elkarrekin afaltzen dugu. Orain arte, honakoak landu ditugu: hanburgesak kozinatzea, sare-sozialen inguruko kanpaina, San Silbestre eguna antolatzea, azaroaren 25eko egunaren jatorria ezagutzea, etab.

Abenduaren 31n ospatu genuen San Silbestrea. Herriko lehen izateaz gain, gaztelekuak herritik eta herriarentzat egin duen lehenengo ekintza izan zen. Ostiraletako hainbat bileren ostean, bi ibilbidez osaturiko ekintza egitea erabaki genuen: laburra eta luzea, adin guztietara egokitzeko. Parte-hartzaile kopurua eta jendearen iritziak kontuan hartuta, urtea ezin hobeto amaitu genuen Itsasondoko herritarrok.

Gabonetako oporrak igaro ondoren, indarberriturik eta gogotsu gatzotsu. Herrian jaio den eragile berri hau zuen beharrek, eta, bereziki gazteenak, asetzeko jaio da. Beraz, ez ezazue utzi honelako aukera paregabeari ihes egiten. Animatek zaitzete, eta ostiralera arte! Besarkada handi bat. ■





Jubilatuok urte berrian ere martxan

2018ari amaiera emateko, urtero legez, San Tomas egunean, txorizo goxoa jateko elkartu ginen Biziekien elkartean. Urte berriari zer eska? Amaitu bezala gure ekintzekin gozatzan jarraitzea. Tipi-tapari ez diogu hutsik egiten, gimnasia gortputza mugitzen dugu, eta memoria eta bingoan buruari eragiten diogu. Ez ginen geldirik egoteko jai!

Horrez gain, maiatzaren amaierarako Goierriko dozena bat herrirekin Goierriko Jubilatuen IV. Ibi-laldia antolatzen ari gara gure herrian. Egun berezia izango da guretzat; horregatik, herritar guztien parte-hartzea eta laguntza eskatzen dugu aurrez. Herri Bizitza batzordean ari gara egun horren nondik norakoak lotzen, eta laster izango duzue informazio gehiago (ibilbidea, egitaraua etab).

Negua pasatu eta udaberriarekin eguraldia hobetzen hasten denean, hurrengo irteeraren berri emango dizuegu. ■





Iraunkortasunerako ekintza-plana eraikiz “Guztion Herria”-ren baitan

Tokiko Ekintza-plan berria diseinatzeko prozesua Itsasondoko herriaren egungo argazki batetik abiatuko da. Horretarako, bizilagunei sektorekako elkarrizketak egingo zaizkie, urtarrila eta otsailean zehar.

Itsasondoko 2. Tokiko Ekintza-plana 2013an onartu zen, hasierako plangintzaren berrikuspen prozesu batean oinarriturik. Itsasondon herritarren partaidetzak izan duen garrantzia dela-eta, eguneratze prozesu horretan ere funtsezkoa izan zen herritarren ikuspuntua jasotzea.

Prozesu hartatik hona herriko partaidetza egitura sendotuz joan da, eta partaidetzarako egitasmo aukera berriak sortu dira. Hala nola, “Haurren herria” egitasmo arrakastatsutik sortu den “Guztion Herria” egitasmoa.

2013an onartu zen Tokiko Ekintza-plana eguneratu beharra atzeman du udalak. Ekintza-planean jasotzen ziren ekintza gehienekin jarraituko du udalak. Beste hainbat ekintzek, ordea, jada ez dute Itsasondoko gaurkotasunean zentzu gehiegirik. Horregatik, etorkizunera begira, gaur egungo gizarteak dituen beharrei aurre egiteko ekintza berriak jasotzea beharrezkoa dela ikusten da.

Era berean, ingurumen arloan klima aldaketaren aurkako neurriek geroz eta pisu handiagoa izan behar dutela aintzat harturik, udalak Tokiko Ekintza-plana aldagai horretara ere moldatu eta egokitzeko erabakia hartu du, klima aldaketaren aurkako egokitzapena udal-kudeaketan sartzeko asmoz.

Eguneraketa prozesu honetarako udalak Laia Kooperatibako lantaldearen laguntza izango du. Ekintza-planaren diseinu prozesu berrirako ezinbestekoa izango da berriro ere herriaren hitza entzutea. Horrela, “Guztion Herria” egitasmoan sorturiko partaidetza dinamikak erabiltzea garrantzitsua izango da eguneraketa prozesuan, herriaren gaur egungo beharrak antzeman eta Itsasondoko eszenatoki berrietara egokitzeko etorkizunerako erronkak eta helburuak definitzeko.

Era berean, udal barneko partaidetza egitura erabiltzea aurreikusten da. Udaleko hiru batzordeek (Lurralde antolaketa, Ongizatea eta Herri bizitza) Ekintza-planaren eguneraketa prozesuaren jarraipen, koordinazio eta hausnarketara zein baliotasun funtzioak beteko dituzte, Laia-ko lan-taldearen laguntzarekin.

Elkarrizketak herri diagnostikorako

Berez, partaidetza prozesuaren oinarrian dago herriaren diagnostikoa egitea. Horretarako erabiliko diren tresnak herritarrei egingo zaizkien elkarrizketak dira.

Elkarrizketen bitartez, bizilagun guztien ikuspuntuak jaso ahal izango dira. Horretarako prestaturiko elkarrizketa gidoia udaleko ordezkari eta herriko sektore ezberdinekin adostu da.

Elkarrizketak hainbat sektore eta eragilerekin egingo dira, hala nola: hezkuntza (eskola, haurtzaindegia, zaintza, gurasoak), udal langileak eta hezitzaileak, kultura eta euskara batzordea, jubilatuek, baserritarrak, enpresa eta merkatariak, osasun komunitatea, ezinduek, auzotarrak, elkarateak etab.

Horrela, urtearekin batera, elkarrizketei helduko zaie urtarrilean. Laia-ko teknikariek sektore bakoitzari loturiko herritarrekin hitzorduak lotuko dituzte ordu bete inguruko elkarrizketak egiteko.

Lanean hasteko oinarri bat

Elkarrizketetan jasotako ideiez gain, Laia-ko lantaldeak udaletik eta hainbat iturritatik bilduko dituen datu objektiboak jasoko dira herri diagnostikoan. Herri diagnostiko hori oinarri bat izango da iraunkortasunaren ikuspegitik herriak zertan hobetu behar duen aztertze eta ondorengo pausoak zehazteko. ■



Ordiziako plaza, 2018ko martxoaren 8an.


Martxoaren 8an greba feminista Itsasondon

Pasa den urteko martxoaren 8ak, ezbairik gabe, mugarri bat jarri zuen borroka feministan, atzera itzulirik ez duen bidea egina dagoela adierazi zigun: milaka emakume zein gizon izan ginen Euskal Herriko kaleak bete genituenak. Gertakizun horren aurrean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak aurten ere greba deitzea erabaki du, baina ez nolanhako greba, greba feminista baizik. Nola ardatzuko da greba feminista hori? Bada, lehengo urtean bezalaxe, lau ardatz nagusi izango ditu, baina horietako bati emango zaio protagonismoa: zaintzari.

Zaintza emakumeon bizitzan behin eta berriz agertzen den elementua da: haurren zaintza, helduen zaintza, gaixo daudenena, elbarri daudenena... Besteen zaintza, inguruan ditugun zaintza. Eta emakumeona diogu, jendarte patriarkatu honetan emakumeak baikara zaintzaren zama handiena hartzen duguna, izan ordaindua ala muxu truk egiten duguna. Hala, mugimendu feministak urteak daramatza gaia lantzen, eta ez dira alferrikakoak izan esfortzuak: emakumeak jendartean jokatzeko dugun bigarren mailako paperaren kontzientzia handiagoa ari gara hartzen; eta lan-munduan ere, azken hilabeteotan Euskal Herrian egin diren borroka sindikal asko feminizatutako sektoreetan izan dira (zaharren egoitzetako zaintzaileak, garbitzaileak, transnazioaletako dendetako saltzaileak...).

Beraz, aurtengoan ere kaleak hartuko ditugu, baina kale horiek kontzientziak bete nahi ditugu: ideiez, pentsamenduez, aldarrikapenez. Horretarako, Mugimendu Feministak Euskal Herrian emakumeok pairatzen dugun injustizien inguruko txostena prestatu du. Datuek argi diote: zapaldu-tako generoa gara, egoerari buelta eman beharrean gaude eta horretarako tresnak baditugu, borondatea baino ez zaigu falta. Gainera, aurten, mobilizazio guztiak deszentralizatuak izango dira, hau da, ez dugu zertan hiriburuetara jo behar. Argazkia ez da pasa den urtekoa izango, ez baita argazki bakarra egongo, hamaika baizik.

Zer egingo dugu? Nola egingo dugu? Nola informatuko ditugu herritarrak? Galdera horiei erantzuten hasi gara Itsasondon; eta, gainera, Goierriko bileretara ere joaten gara Euskal Herriko mugimendu feministarekin bat egiteko. Bestalde, urteroko bazkaria martxoaren 8an egin beharrean, larunbatean egingo dugu, martxoaren 9an, hala, pasa den urtean bezalaxe bazkalondoko bertso-saioaz gozatzeko aukera izango baitugu. ■



Jolas eta jostailu ez sexisten tailerra

Nola lotzen dira jolasak, jostailuak eta sexismoa? galdera abiapuntu gisa hartu, eta hausnarketa egitea eta konpartitzea izan zen Itsasondon egin genuen tailerraren helburua.

Jolasak eta jostailuak, berez, ez dira sexistak, horien erabilpena da sexista. Jendarteak horien inguruan helarazten duen mezua eta erabilera da jostailuak sexista egiten dituenak.

Baina hori kasualitatea al da? Gaur egungo jendarte eredia aztertuz gero, zaila al da jostailuen munduaren atzean dagoen generoen arteko bereizketa identifikatzea, kokatzea eta arrazoitzea? Aztertzen jarrita, nahiko ageriko errealitatea da.

Haurren izatean jolasak garrantzia handia duela jakinda, jostailuen inguruko azterketa kritiko bat egiten ere saiatu ginen, ikuspegi feministatik. Ondoren, genero rola kontutan hartuta, merkatuak eskaintzen dizkigun jostailuen azterketa bat egiten saiatu ginen.

Horixe izan zen tailerraren funtsa. Gaur egungo errealitatea aztertzen saiatu ginen, errealitate horren baitan norbera nola sentitzen den eta egoera nola ikusten dugun zehaztu genuen. Horrez gain, aurrera begira zer egin beharko genukeen ere aipatu genuen. ■



Hurrengo agintaldia prestatzeko prozesuan murgilduta

Agintaldia amaitzean den honetan, egokia iruditu zaigu herritar guztiei hurrengo prestatzeko lantzen ari garen prozesuaren berri ematea. EH Bilduren udal-ekimena eta taldea eraberritzeko lana ez denez nolana hikoia, gaiari denboraz ekitea erabaki eta martxoan hasi genuen prozesua: lehenik, bi astez behin EH Bilduko taldeak egiten dituen bileretan gaia landuz; eta, ondoren, ekainean egin genuen herri-batzarrean prozesuari izaera publikoa emanez.

Ekainean egin genuen herri-batza jendetsuan, edozein agintaldi baldintzatzen duten funtsezko bi elementuz aritu ginen: Itsasondoko EH Bilduren balio eta printzipioez eta herrian egin nahi ditugun proiektuez. Hasieran, egungo zinegotzi eta batzordeetako kideek, arloz arlo, azken urteetan egindako lanaren laburpen bat egin ziguten. Oinarriko kokapen horrekin, ez zen zaila izan herrian ditugun beharrak identifikatzea eta proposamenak egitea. Bukatzeko, alkatagai eta zerrendakide berrien izen-bilketarako ekimenearekin aurrera egitea erabaki genuen.

Horrela, gure herriko festen bueltan, EH Bilduko kideok etxeko banaketa bat egin genuen, taldearen printzipioen berri eman eta herritar guztiei zinegotzi berrien izenak eskatuz. Ekimen berritzailea eta arrakastatsua izan zen: 60 zerrenda baino gehiago jaso genituen. Proposamenen artean, guztira 57 herritarren izenak bildu genituen, zinegotzi izan zitezkeen 57 itsasondoa! Herri txikia bai, baina emaitzak herri bizia ere bagarela agerian utzi zuen. Gainera, proposatutako herritarren erdia baino gehiago emakumeak izan ziren, eta gehien proposatutako hamarren artean zazpi emakume topatu genituen. Pixkanaka ari dira gauzak aldatzen, pixkanaka ari dira emakumeak plaza publiko betetzen, baita Itsasondon ere!

Emitza arrakastatsu horien ondorioz, Itsasondoko EH Bilduren taldeko kideak egon ginen proposatuak izan ziren pertsona horiekin guztiekin, banan-banan. Herritarrek zinegotzi edo alkate izateko proposatu zituztela esan genien, eta herriko batzorde zein taldeetan lan egiteko zuten prestutasunaz hitz egin ziguten. Hala, herri mailako antolaketa eta lanak jende gehiagoren artean banatzeko aukera baliatu genuen.

Prozesuan eman dugun azken urratsa, urtarilaren 19ko herri-batzarra izan dugu. Bertan, herriko elkarte zein taldeen eta Udaleko batzorde zein lanen organigrama soziala egin genuen, EH Bilduko kide bakoitzak bere burua non kokatzen duen adieraziz eta argazki osoa ateratzeko urratsa emanez. Gainera, herritarrek inplikatzeko egindako prozesu parte-hartzaileari esker, hurrengo hauteskundeetan aurkeztuko den lantaldea ere ezagutu eta onetsi genuen.

Indar eta gogo hori guztia ikusita, ez izan zalantzarik, guzion nahi eta beharretara moldatuko den Itsasondoren alde jarraituko baitugu lanean! ■


Zer galdetuko zenioke alkateari amaitzen ari den agintaldi honen inguruan?

Hurrengo zenbakian, Axier Garro alkateari agintaldi honi buruzko elkarrizketa bat egingo diogu, eta zuk ere baduzu aukera zure galdera prestatzeko.

Bi modutara helarazi dezakezu zure mezua: udaletxeko sarreran egongo den postontzian utzita edo alkatea@itsasondo.eus helbide elektronikora bidalita.

Azken eguna martxoaren 3a izango da, animatu! ■





Gorka Martinez

Gorka Martinez Urdangarin 1979an jaiotako erdi-itsasondoarra dugu. Jaiotzez donostiarra, bizitzako lehen urteak Tolosan egindakoa da; eta, ondoren, 18 urte egin arte Baionan bizitakoa. Tolosara itzuli zen, baina egun Itsasondon bizi da.

Noiz eta non jaio zinen?

1979an jaio nintzen, Donostian.

Gurasoak donostiarrak dituzu?

Ez, tolosarrak. Ama tolosarra eta aita izatez nafarra, Larraga izeneko herri txiki batekoa, baina hura ere tolosartua.

Donostian bizi izan zinen edo jaio bakarrik egin zinen han?

Donostian jaio nintzen, baina Tolosan bi urtez bizi ondoren, beste 16 urte Baionan egin nituen. Ondoren, 18 urterekin Tolosara itzuli nintzen, eta gero Itsasondora etorri ginen bizitzera.

Nolatan Baionan?

2-3 urterekin gurasoek Iparraldera ihes egin zuten, gure historia politikoa dela-eta. Han egon ginen hamasei urtez, han egin nituen ikasketak, baita Frantziako selektibitate ohia ere, Baxoa deiturikoa, Parisen. Azterketa hori Espainiako programa jarraituz egin behar izan nuen. Nik ez nuen inoiz irakurri programa hori, eta bat-batean Parisen hori egitera derrigortu gintuzten, Parisko enbaxada espainiarrean. Azterketa egin, baina lehendabiziko aldian ez nuen gainditu. Bigarrengoan gainditu eta irailean EHUn zuzenbidea egiteko plaza bat lortu nuen. Iparraldean erizaintza egiteko onartu ninduten. Nik uste nuen erizaintza zela nire bokazioa, baina hemen ez nuen izan aukerarik; azkenean, zuzenbidea egin nuen, nota baxua bainuen.

Ikastolara iristeko hogeit minutuz ibiltzen nintzen oinez eta ondoren 40 minutuz autobusez.

Ez dit eman inoiz beldurrik bidaiatu eta kanpoan lanean ibiltzeak.

**Gustatu zitzaizun egindako aukera?**

Ez, batere ez. Ez dut inoiz inolako erlaziorik izan zuzenbidearekin, ez zait gustatzen. Nirekin ikasi zutenetako asko gestoretan, bankuetan... dabilta lanean. Beste batzuk abokatuak dira, gutxi, baina mundu zaila da, entxufe asko dago oraindik. Ikasketak egin bitartean lana ere egiten nuen. 19 urterekin aitalan egiten zuen tailerrean hasi nintzen. Mekanika tailerra zen, eta mantentze lanak egiten genituen. Makineria industrialarekin lan egiten zen bertan, eta horien mantentua egitera joaten ginen lantegietara. Eskolak goizez nituenan

arratsaldez egiten nuen lana, eta alderantziz.

Aztera itzuliz, esan duzu 3 urterekin Iparraldera joan zinetela, ezta?

Bai, hori da. Egun batetik bestera joan ginen egoerak bultzatuta. Donibane-Ziburura (Lapurdi) joan ginen, lagun batzuen etxean egon ginen denboraldi batez.

Eta ondoren Baionara joan zineten?

Bai, Baionara, Baiona txikira. Bertan euskaldun dezente zegoen.

Bertan hasi nintzen Ikastolan, hasieran barrakoiak ziren. Barrakoiak gure gurasoek eraiki zituzten, alderik ez egungo ikastolekin. Barrakoiak itoginak zituzten, alkohola erabiltzen zuten fotokopiak egiteko... asko aldatu dira gauzak. Barrakoietan urte batzuk egin ondoren Herri Urrats bezalako ekimenei esker Kanboko ikastola eraiki zuten. Orain nire seme-alabei kontatzen diet garai hartan ikastolara joateko egiten nuen bidea, eta ez dute sinesten. Ikastolara iristeko hogeit minutuz ibiltzen nintzen oinez eta ondoren 40 minutuz autobusez. Ordubate inguru pasatzen nuen egunero ikastolara iristeko.

Ikasketak guztiak ez zenituen euskaraz egiteko, ezta?

Bai. Dena euskaraz. Baziren bi azterketa frantsesez egin beharrekoak, eta horretarako frantsesa ondo menderatzen genuela ziurtatzen zuten, baina euskaraz ikasi nuen. Erronka frantsesez ondo jakitea zen, eta egia esan ondo joan zitzaidan, ondo moldatu nintzen. Han beti euskaldunen tartean ibiltzen ginen, baina frantses lagunak ere egin nituen, futboleko jolasten nuelako.

“Eraikitzea gustatzen zaion pertsona bat naiz; behin proiektua eraikita dagoenean, nahiago dut nire lana hori bukatzea, beste ideia bati heltzeko”

Urte guzti horietan hona etortzeko gaizki ibili zara?

Nik pasaporte oso berandu lortu nuen, eta anaia ez zen etorri. Ia etorri gabe pasatu genuen bolara bat.

Bi anai zarete?

Bai, anaia Kimetz deitzen da, eta ni baino bost urte gazteagoa da. Gaur egun, Kalifornian (AEB) bizi da. Duela urte eta erdi hango neska bat ezagutu zuen, eta hona egiten ez zirenez, hara joan ziren. Anaia Baionan jaioa da. Baionatik Tolosara etorri ginen, eta orain Kalifornian bizi da.

Iparraldetik itzultzean, zer moduz moldatu zinen hemen?

Hona etortzean, 18 urterekin, unibertsitatean hasi nintzen. Imajinatu, lagunik ez nuen hemen. Lehendabiziko lagun kuadrilla, neskalagun formala... hona etortzean izan ziren. Gu han, Baionan, ez ginen asko ateratzen, gure auzoan ibiltzen ginen, bi hiru kaletan. Azkeneko urteetan gehiago mugitu nintzen, baina hona etortzean aldaketa nabaritu genuen.

Ikasi eta lana egiten nuenez, denbora libre asko ez nuen izaten, baina ondo bizi nintzen. Orduan ezagutu nuen Tolosako Casa Eceizako nagusia, eta hizketan-hizketan berarekin lanean hasteko proposatu zidan. Hasieran ekoizpenean hasi nintzen lanean. Guztira hamabi urtez-edo aritu nintzen Eceizan.

Bertan komertzial lanetan ere ibili zinen, ezta?

Bai, hori da. Guztira, hamalau urtez aritu nintzen Eceizan, baina hor erdian bi urteko geldialdi bat egin nuen. Lanean aspertzen hasia nintzen. Ekoizpenean makineria guztia jartzeaz arduratzen nintzen, talde bat neukan nire kargu, ordutegiak egiten nituen, oporrak planifikatu... eta gehiago. Guztia bideratuta zegoenean AMPORA joan nintzen lanera. Bi urte egin nituen han, eta

bazkide egitea proposatu zidaten. Garai berean Eceizatik deitu zidaten, proposamen berri batekin, aurretik egindako lanak atzera egin zuela-eta. Itzultzea erabaki nuen, lantegian egunero lan bera egiten aspertu egingo nintzela jakin banekien-eta.

Ezeizara itzuli eta ekoizpen linea berri batzuk jarri genituen martxan. Komertzial izatera pasatu nintzen. Bi urte egin nituen esportazioaren merkatuan.

Garai hartan munduan zehar ere ibili zinen.

Bai, nire ingelesa ez da primerakoa, baina ez dit eman inoiz beldurrik bidaiatu eta kanpoan lanean ibiltzeak. Errusiara joatea egokitu zitzaidan. Pentsatzen nuen ingelesarekin moldatuko nintzela, baina han ingelesak ez du askorako balio. Moskura (Errusia) lehendabizikoz joan nintzenean Eusko Jaurlaritzak han duen bulego batean izan nintzen, eta laguntzaile bat jarri ziguten, errusieraz egiten zuena. Errusiako leku askotan sartzea lortu genuen, supermerkatu askotan. Logroñon (Errioxa, Espainia) enbutido enpresa bat zuen tolosar batek lagundu zigun bertan. Saldu genituen kamioikada batzuk Errusian.

Errusiarako paketatze berezia egin nuen, eta horretarako merkaturatu nuen lehendabizi. Astebete egon nintzen han supermerkatuak aztertzen, zer saltzen zuten ikusten, zeintzuk ziren hango kodigoak identifikatzen, errusiarrengana iristeko asmoz. Kajak aldatu nituen, zapoak aldatu nituen... hara bidaltzeko. Han bagenuen bezero ohi bat, eta berriro berarekin negoziatzioan hasi eta horretan egon ginen. Sartu genuen produktua, azkenean. Frantzian saltzea, adibidez, zailagoa da, gutxi saltzen genuen. Beraiek gailera munduan produktu asko dute, beraz ez dute hemengo enpresa bati erosteko beharra ikusten.

Erresuma Batuan ere ibili nintzen, baina luxuzko supermerkatuetan. Txinan oso gutxi, Japonian pixka bat... eta apustu handia egin nuen Ameriketako Estatu Batuekin. Han lau aldiz izan naiz, Chicagon, Baltimoren, New Yorken, Los Angelesen... azoketan eta bileretan, produktuak saltzeko. Han ere Errusian erabilitako paketatze antzekoak erabili nituen, pixka bat hemengo materialari balioa handituz, oliba olioak erabiliz esaterako. Han agente komertzial bat lortu nuen niri laguntzeko, baina ez zuen oso ondo funtzionatu. Pare bat edukiontzi bidali genituen eta hor gelditu zen.

Mexikon ere egin genuen lan, supermerkatu kate batekin. Txilerekin ere nahiko lan egin genuen, tarta izoztuak saldu nituen kasu honetan. Tarta izoztuen zazpi kontenedore handi saltzea lortu nuen.

Bakarrik bidaiatzen zenuen?

Batzuetan gerentea etortzen zen, baina gehienetan bakarrik bidaiatzen nuen. Abenturara.

Erakusgaiekin joaten zinen?

Bai. Erakusgaiak maletan eramaten, kontuz-kontuz, apurtzeko beldurrez. Behin, Danimarkan, bilera batean, kaja bat eraman nien lagin moduan, ireki, eta denak apurtuta zeuden. Imajinatu... Esan nien ez zirela horrela iristen normalean, baina beldurra zuten eskatu eta horrela iritsiko ote ziren. Hurrengo egunerako muestra gehiago eskatu nituen. Ondo iritsi ziren eta erosi zizkiguten produktuak.

Herbeheretan ere badut anekdota bat. Handik txokolate muestra batzuk ekarri behar nituen, txokolate blokeak. Hiru txokolate mota nituen (hiru kilogramo orotara) nire maletan, plastikoan bilduta. Batean txakurrak, polizia... maletan zerbait nuela-eta. Ikusitakoan barre egingo zutela esan nien, baina horrelako gauzeekin barrerik egiten ez dutela ere esan zidan, uste zuten



Arrantza da bere zaletasuna.



Chicagon.-



New Yorken.-



Moskun.-

sekulakoa nuela gainean, eta hiru kilo txokolate ziren... Usaintzeko esaten nien, txokolatea zela, azkenean konturatu ziren. Ona izan zen. **Beste anekdotaren bat baduzu?**

Behin, Parisera joan nintzen batean, hotelik gabe nengoan. Ez nuen hotelik hartu joan baino lehenago. Internet bidez hartu nuen azken momentuan, hara joan eta izugarriko logela handia zen, 20 pertsonarentzako-edo, literak laukoak ziren. Azoka batetara joan nintzen eta bertan Eusko Jaurlaritzakoak ere baziren. Hotel batean logela bat behar nuela esan nien, baina ez zegoen, dena beteta zegoen. Azken aurreko egunean, logela bat lortu zidaten. Presidentea eta Donostiako ministroa ziren etortzekoak, baina azkenean ez zirela joango eta bertara joan nintekeela. Kargu publiko batek horrelakorik ez duela behar pentsatu nuen, denetik zegoen, gehiegizko luxua.

Abentura horiek komertzial ibili zinen bi urtekoak dira, hor-taz.

Bai, esportazioan ibili nintzenekoak. Horrek inbertsio handiak eskatzen ditu, eta azkenean esportazioa pixka bat alboratzea erabaki genuen.

Ondoren Euskal Herri mailako distribuzioaren enkargatu izatera pasatu nintzen. Urte eta erdi aritu nintzen horretan, baina berriro aspertu nintzen, eta utzi egin nuen.

Eraikitzea gustatzen zaion pertsona bat naiz; behin proiektua eraikita dagoenean nahiago dut nire lana hor bukatzea, beste ideia bati heltzeko. Enpresa berdinean izan edo ez.

Garai hartan enpresa frantses bat ezagutu nuen, turismoaren inguruan elikadurarekin lotutako opariak egiten zituena. Nire enpresan proposatu nuen halako zerbaitegitea, baina ezezkoa eman zidaten,

eta orduan enpresa frantses horrekin joan nintzen. Laster lau urte egingo ditut neuk bultzatutako negozio honetan lanean.

Espainian zabilta orain lanean, ezta?

Bai, Espainian eta Portugalen ere bai. Azkenean enpresaren intentzioa Europako herrietan horrelako egiturak eraikitzen joatea da. Hurrengoa Italia izango da, bertan hemengo antzeko zerbaitegitea da asmoa.

Baina oraingoz hemen, penintsulan eta irlatan gabiltza. Portugaleko irlak, Madeira, Tenerife, Fuerteventura, Lanzarote...

Enpresa horretan turismoari zuzendutako opariak saltzen dituzue, ezta? Hiriz hiri pertsonalizatuak.

Bai, honi orain destination pack deitzen zaio. Lekuaren arabera pertsonalizatutako produktuak saltzen ditugu. Gakoa ez dago bertako

produktuak saltzean, baizik eta bertako oroigarriak saltzean. Hori, noski, elikaduraren mundura ekarrita. Imanekin egiten den bezala, baina kaxen eta horrelako elementuen bitartez.

Makinaria berezi batzuk ditugu eta kaxa asko ekartzen ditugu Txinatik. Tirada txikiak direnean pertsonalizatu egiten ditugu, leku bakoitzaren turismoaren arabera. Honekin batera beti ideiak sortzen eta berritzen ari gara. Nire izateko modua ezagututa, iris daiteke honetaz ere aspertuko naizen momentua, baina oraindik ez da iritsi.

Bizitzan zehar ideia asko izan ditut, eta beti oso ezberdinak. Ekintzailetasunaren inguruko foroetan ibiltzea gustatzen zait, eta ekintzaileak direnekin hitz egitea. Adibidez, Galiziako enpresa batekin aritu nintzen hitz egiten haien proiektuaren hasieran. Hauek GPS moduko bat atera zuten, eta hiria bisitatzerakoan kokapenaren arabera bideoak agertzen zitzaizkizun, lekuaren informazioarekin eta abar.

Lan munduan nola gustatuko litzazuke egotea urte batzuk barru? Baduzu ideiarik buruan bueltaka?

Ez daukat ideia finkorik, baina badakit nola gustatuko litzaidakeen bukatzea.

Erretiroaz ari zara?

Ez naiz ikusten erretiratuta. Ezagutzen ditut erretiratzen ez diren komertzial batzuk.

Ni pozik egongo nintzateke, esate baterako, produkzioan gauzak egiten edo nire okindegitxoan ogiak egiten eta abar. Hala ere, egia da sortzen zaizkidan proiektuak eta ideak oso bestelakoak ere badirela, 5.000 langile dituzten enpresarekin, esate baterako.

Egun duzun enpresaren sedea non dago?

Ordizian.

Nire izateko modua ezagututa, iris daiteke honetaz ere aspertuko naizen momentua, baina oraindik ez da iritsi.

Askotan bidaiatzetik etortzen zara, eta buruak oraindik han jarraitzen du, negozioetan, eta zaila da deskonektatzea.



Zenbat langile?

Bost langile. Bulegoak Ordizian, daude. Bi komertzial eta biltegiko langileak gara. Langile batzuk Frantzian daude, zentrala han baitago. Hurrengo urteari begira Frantziakoa hona ekartzeko asmoa daukagu, diru asko galtzen baitugu garraioetan, baita denbora asko ere.

Maila pertsonalean zein den zure helburua galdetu behar nizun, baina ikusten dut zure kasuan maila pertsonala eta profesionala nahiko lotuta daudela.

Bai, beti joan dira oso lotuta. Nire lanarekin asko gozatzen dut egia esan, gauzak eraikitzea gustatzen zait. Guzti honek familia erretzea bat ekar dezake, baina neurria hartu behar zaio. Askotan bidaiatzetik etortzen zara, eta buruak oraindik han jarraitzen du, negozioetan, eta zaila da deskonektatzea.

Badago lanean erantzukizunik edukitzea gustatzen ez zaion jendea, baina beste batzuk ez dugu horretarako balio. Niri lana sortzeak ilusioa egiten dit. Ni bakarrik hasi

nintzen eta orain enpresan bost sei pertsona edukitzeak asetzen nau.

Lan kontuak albo batera utzita, kirolzalea ere bazara.

Bai hainbat kirol egin izan ditut. Arrantza, esaterako, asko gustatzen zait. Batzuek esaten dute ez dela kirola, baina gustatzen zait.

Itsasoan egiten duzu arrantza?

Arrantza beste hainbat kirolekin nahasten dut. Urpekaritza eginez, piragua baten gainean... Piraguarekin nahikotxo ibili naiz, baina egia da azkenaldian gutxiago ibiltzen naizela lana dela-eta. Azken finean asteburuetan nahiago dut familiarekin egon.

Beste kirol batzuk ere badituzu gustuko, ezta?

Bai, eskiatzea hobby-a da gehiago. Ez dut horrenbeste eskiatzen, ez naiz askotan joaten, baina bai, praktikatzen dut eta nahiko ondo ibiltzen naiz. Futbola ere gustatzen zait, urte batzuk egin nituen futbolekin jokatzeko.

Futbolekin federatuta egon zinen, ezta?

Bai, 17 urte egin arte-edo.

Zenbat urte daramatzazu Itsasondon?

2005ean etorri ginen. Ia-ia nire bizitzako parte handiena.

Zer duzu gustuko Itsasondotik?

Itsasondo oso aldatuta ikusten dut duela hamabost urte etorri ginetik hona. Duela hamabost urte askoz ere ume gutxiago zegoen, bizitza gutxiago, azken finean. Lehendabiziko bi urteetan, gainera, ez genuen jendearekin harreman handirik izan, ez genuen inor ezagutzen. Gero oso ondo moldatu ginen, eta bertako jendearekin oso gustura gaude egia esan.

Zer jarriko zenuke Itsasondon?

Funtzio anitzeko parke bat jarriko nuke. Futbola, saskibaloia eta abar dituen horietako bat. Umeek kirol horiek bertan praktikatzeak aukera izango lukete modu honetan. ■

YouTUBE eta 13. artikulua

Europar Batasunak ezarri behar duen lege berriagatik, agur esan beharko al diogu Youtube-ri?


Ez dakit ikusi duzuen Youtuben azaltzen den iragarki berezi bat. Halako mezu edo bideo bat agertzen da iragarkian: "Save your internet".

Ez, ez da antibirus baten iragarria, zerbait serioagoa da. 2018ko irailetik lege berri bat eratzeko asmoarekin dabil Europar Batasuneko parlamentua. Lege hau hamahirugarren artikulua bezala ezagutzen da. Bertan, copyright edo jabetza lizentzia daukaten multimedia material guztia xehetasun gehiagorekin aztertze eskatzen da.

Zertarako xehetasun gehiagorekin aztertu? Interneteko sare sozialetan konpartitzen den materiala ez delako guztiz gurea. Materiala sortu duen pertsonarena delako, jabetzan. Lasai, pausoz pauso saiaturako gara aztertzen zer den kontu hau:

Badakizue, betidanik egon dela gatazka bat musikaren eta zinemaren munduko ekoizleen eta Internetaren artean. "Piratea" tarteko, irabaziak murrizten zaizkiela esaten dute ekoizleek, kulturari sekulako mina eginez. Alde batetik arrazoia daukate, baina hamahirugarren artikulua honek arautu nahi duena hori baino gehiago da. Dena den, esan beharra dago hamahirugarren artikulua oraindik zirriborro bat dela, ez dagoela onartuta.

Artikuluaren zirriborro honen helburuak ezagutzeko, adibide gisa Youtube hartuko dugu. Legearen arabera, Youtubera igotzen den material guztia guk sortua izan beharko litzateke. Alegia, ezingo litzateke beste norbaiten edukirik igo. Beraz,



guk Youtubera artistaren baten bideoa, musika edo haren inguruko iruzkinen bat igoko bagenu, plataforma behartuta egongo litzateke eduki hori ezabatzeraz. Adibidez, guk pelikula baten kritika egin nahi badugu, ezin dugu. Izan ere, pelikula hori ez da gurea, ekoizlearena baizik. Horrenbestez, Youtubek ezingo luke gure bideoa publikatu.

Hori dela eta, Youtubeko kate askok beldurra diote lege horren ezarpenari. Izan ere, horrek esan nahi du bideoak ezabatu beharko litzaketela edo, are gehiago, Youtubeko kateak itxi. Beraiek sortutako bideoak izan arren, beste batzuen abestiak edo irudiak erabiltzen badituzte, bideo horiek ez publikatzeko arriskua izango dute.

Dagoeneko jende asko dago lege horren aurka, baina beste batzuk haren alde daude. Izan ere, zirriborroa denez, gauza batzuk aldatu daitezke oraindik. Oraindik ez dakigu zer punturaino iritsiko den hori.

Pentsa, enpresa askok Youtuberen publizitatearengatik diru asko irabazten dute. Legea ezarri gero, youtuberrek eta enpresa askok dirua galduko lukete. Hori, gehien bat, da zinema eta musika industriaren etorkizuna bermatzeko, nahiz eta luzera begira, haiek ere galerak izan zitzaizketen.

Azken finen, gauza bat argi eskatzen die Europar Batasuneko lege honek sare sozial guztiei. Beraien filtroa zabaltzeko eta agresiboago egiteko; horrela, jakiteko zer edukik duten copyright edo egile eskubidea, eta zeinek ez.

Imajinatzen duzue pelikula trailerrik agertzen ez den Youtube? Edo bideoklipik gabekoa, tutorialik gabekoa, kontzertuak ikusteko aukerarik ematen ez duena...

Arraroa, ezta? Baina gerta daitezke, oraindik gauzak garbi ez dauden arren. Baina mundua nola doan ikusita, edozer gauza gerta daitezke. Ez da ahaztu behar Google News-ekin gertatu zena Espainian. Antzekoa izan zen gutxi gorabehera. Espaniako Gobernuak, Jabetza Intelektualaren Lege berriarekin, Google-ri kanon bat ordaintzeko exijituzion, publikatutako artikulua bakoitzarengatik. Googlek, hori ikusita, Espainiako zerbitzu hori ixtea erabaki zuen. Berdina gertatuko zaio Youtuberi?

Denborak esango digu zer gertatuko den. Garbi dagoen gauza bakarra da gauzak ez daudela batere garbi; eta hartzen den erabakiaren arabera, kontuak izugarri aldatuko direla. ■

Olentzero eta Mari Domingi

Gabon hauetan, berriro ere gure herri txiki honetara Olentzero eta Mari Domingi etorri ziren; eta beraiei ongi etorria emateko asmoz, Itsasondok hainbat ekintza antolatu zituen.

Egun batzuk lehenago, haur zein guraso arratsalde batez elkartu, eta ludoteka poli-polit utzi zuten beraien etorrerarako, Gabon apaingarriekin.

Merezitako ongi etorria emateko elkartu ginen!

Eguberri egun bezperan, goizean goiz, herriko haur eta heldu baserritarrez dotore jantzita elkartu ginen. Herrian zehar ibili ginen kalejiran, gabon abestiak eta trikitixa doinu zein gitarrista apartak lagunduta. Horrela, herriko kaleak alaitu genituen, gabon giroan murgilduta, eta Gabon kantak abestuz.

Giro hotza zegoen, baina horrek ez zituen herritarrak atzera bota, hori ezinezkoa zen Arbelaitz Elkar-teak prestatutako hamaiketakoaren ondoren! Berriro ere eskertu beharra dugu elkarteko bazkideei eskaini zituzten hamaiketakoak!

Behin indarrak hartuta, ibilbidea jarraitu eta plazara iristerakoan, han topatu genituen Olentzero eta Mari Domingi menditik jaisten...

Haur guztiak ilaran jarri eta banaka-banaka, biko-tearengana hurbildu, eta beraien ilusio zein ametsak kontatu eta gutunak entregatu zizkieten. ■



San Silbestre

2018. urte honi amaiera korrika eman genion. Gaztelekukoen inizatibaz, aurten lehendabizikoz Itsasondoko San Silbestrea ospatu zen abenduaren 31 goizean. Bi ibilbide bereizi ziren eta adin guztietako 50 lagunetik gorak hartu zuten parte. Labur-rean, Urko Garcia izan zen garaile; eta luzean, berriz, Unai Kerexeta.

Korrika saioa amaitu ondoren, indarrak berreskuratzeke hamaiketakoa eta goxokiak izan ziren parte-hartzaile guztientzat eta animatzera hurbildu zirenentzat. Bestalde, patata tortila eta txorizo egosi pintxo goxoak ere izan ziren.

Amaiera emateko, brindisarekin agurra eman genion urteari, ondoko testua irakurri eta bertsoak abestuz:

Bertsoak:

Doinua: *Anai arrebok hementxe nator*

Urte zaharra badoa eta
Segidan dator berria,
Bi mila eta hemeretziak
Behar du bere egutegia
Egun, aste eta hilabetei
Erantsiaz argazkia
Urte honek ere eduki dezan
Itsasondoko aurpegia

Mundu hobe bat Itsasondotik
Eraikitzea da gako,
Eta horretan gure herrian
Jada gabilta galako,
Ongizatea zabalduz gehien,
Behar duen haiantzako,
Parekidetasuna zaintzea
Denon ardura delako

Egilea: Ander Malbadi



Orain presoak

Tamalez, urteroko zita bihurtzen ari zaigu Bilboko manifestakoa. Aurten "Orain presoak" lelopean egin da, eta Itsasondotik autobusean joan ginen, gure elkartzasuna adieraztera. Aurtengoan Bilbon eta Baionan egin diren deialdietan 85.000 lagun elkartu ginen, tantaz tanta, guztiak etxean izan arte. ■



Velma & Cris antzezlan

Ainhoa Ruiz eta Laura Villanueva igo ziren oraingo honetan taula gainera, eta ordubete inguruko ikuskizuna eskaini ziguten. Bi emakume erabat desberdin antzeztu zituzten: bata amatiarra, esperientziarantz jantzia, zentzuduna... bestea aldiz, gazteagoa, esperientzia gutxiago zuena, baina aldi berean, ausarta eta dibertigarria. Bazuten, ordea, komunean gauza bat: ama, alaba, ahizpa... bezala bizirik iraun ordez, libre izan nahi zuten, aske bizi. Horretarako jarrerara ausartak erakutsi zizkiguten, umorea inoiz alde batera utzi gabe, noski. Bejondeizuela, neskak, arratsalde paregabea eskaini zeniguten! ■



Euskal dantzen ikastaroa

Jaietan "Ttipika" taldearekin ostiralean egindako dantzaldiaren ondoren, herritarrei euskal dantza ikasteko aukera zabaldu zaie. Bi astez behin Eskolan elkartzten dira, eta oinarrizko dantzetatik hasi, eta azken urteetan plazan dantzatzen diren dantza mo-

dernoetaraino, gerria mugitzeko aukera izaten dute. Besteen artean, fandangoa, arin-arina, jauziak, agarratua, txotisa, Lantzeko zortzikoa... ikasten ari dira 26 herritar.

Ea plazan noiz egiten duten erakustaldia! ■



Mikel Otegi eta Gotzon Izkiardoren erakusketa

Kultura batzordeak antolatuta, azaroaren 26tik abenduaren 1era, bi herritarren artelanak izan ziren ikusgai udaleko kulturgunean.

Batzuek, aurretik, artista hauen abilezia ezagutzen zuten arren, erakusketara hurbildu zen jende asko harrituta geratu zen kuadroen maila ikusita.

Erakusketa ikustera etorri ziren zenbaitek Mike-lentzako hitz batzuk ere idatzi zituzten, eta hainbat argazkirekin batera, gutunez bidali genizkion.

Artelan berrien zain geratuko gara, hurrengo era-kusketa antolatzeko. Espero dezagun, Mikel, gure artean izango dugula ordurako. ■



Kantu afaria

Beste urte batez, urteari amaiera ona emateko, azaroaren 23an kantu afaria izan genuen Arbelaitz elkartearen, Kuxkuxtu txarangak lagunduta. Arratsalde partean, Kaxintanen elkartu eta musikaz alaituta, giroa berotzen hasi zen. Nautikon geldialdixoa eginda eta gose puntu batekin, elkartera joan ginen, ordurako Ikerrek afari goxo-goxoa baitzuen prestatuta. Afaldu bitartean, euskal kanta ederrez alaitu ziguten gaua Iparraldeko lagunek, eta etxera joateko ordua iritsi bazitzairen ere, kantaldia ez genuen amaitu, karaokea prest baikenuen. Ahotsek gehiegi lagundu gabe, baina gure intentzio guztiarekin, gustura ibili ginen! ■



Talo festa

Urteko azken hilabetean sartzearekin batera eta, bide batez, hotzari aurre egiteko asmoz, abenduaren 1ean jende ugari bildu zen Errota pilotalekuan, talo goxo-goxoak dastatzeko.

Masa egin ondoren, mahaiaren bueltan emakume asko bildu ziren, eta denbora luzez taloak egin eta egin aritu ziren, beste batzuek, plantxaren berotasunean, talo horiek nola harrotzen ziren ikusten zuten bitartean.

laz bezala, aurtan ere, labea erabili dugu taloaren barruko osagaiak egiteko, eta primerakoak atera dira. Mila esker lanera etorri zineten guztioi. Datorren urtean beste hainbeste izan gaitzela! ■



Gaztaina jana

Azaroaren 10ean, urtero bezala, gaztaina jana egin genuen Itsasondon.

Aurtan eguraldiak lagundu zuenez, mendi buelta egiteko plana mantendu zen. Haur eta guraso taldea elkartu, eta giro paregabean, eskolako ataritik abiatuta, Otamenditik, Agerretik, Malkorretik eta Igartiburutik pasatu, eta pilotalekuan bukatu zen.

Gaztainak, oraingoan, suak piztu eta danbolinetan egin beharrean herriko labean egitea erabaki zen.

Nahiz hotz egin, jende mordoak elkartu eta giro polita izan genuen, gaztainekin, txorixo pintxo, sargardo eta ardoarekin. ■



Ipuin kontaketa

Gabonetako oporraldian, Itsasondoko haurrentzat ipuin kontaketa bi saio izan genituen. Lehendabizi, kostaldean bizi den arrantzale euskaldun baten istorioak entzun genituen, itsasoan barrena bizitako abenturen inguruan. Bigarrenean saioan, Ameli ipuin kontalariak haurrek aukeratutako musika doinuekin, istorio ederrak kontatu zizkigun.

Biak ala biak saio ederrak izan ziren, eta haur kuadrillatxoak eta guraso bat baino gehiago ere elkartu ziren kontaketetara. ■





(natura)

Mihura

Gabonak pasatu direnez, Gabonetan berezia den sendabelarra da gaurkoan azalduko dizuedan mihura.

Herrialde jakin batzuetan, Eguberriko ohituretan erabiltzen dute.

Euskal Herrian oso ezaguna da mihura; batetik, sendabelar bezala eta, bestetik, Gabonetan badelako ohitura etxeetako ateetan jartzeko. Oihutara horren arabera, zorte onaren eta indarraren sinboloa da, energia onak erakartzeko, eta txarrak uxatu. Horretarako, mihurez apaindutako atetik pasatu behar da. Bestalde, egokiena da norbaitek oparitutako mihura izatea etxean; norberarentzat erositakoa baino hobea da.

Beti berde-horixka egoten da mihura (parasitua). Zuhaitzetan jaiotzen da. Beraz, oso erraza da zuhaitz baten goiko aldean aurkitzea. Hainbat zuhaitz motatan aurki dezakegu (fruitu arbolak, haritza, akazia...). Haren adarrak eta zurtoinak berde-horirik dira.

Hostoak bata bestearen parean jaiotzen dira, adartxo asko izaten ditu mihurak, eta landare biribil antzekoa osatzen du. Bestalde, fruitua baia zuri biribila da. Udazkenean eta neguan ematen du fruitua.

Loreak, horixkak, hironaka edo launaka ikusiko ditugu. Udaberrian loratzen dira.

Mihura landare TOXIKOA dugu. Baiak edo pikorrak izaten dira barneko erabileran toxikoak. Kanpoko erabilera ere baduten arren, KONTUZ erabiltzeko landarea da. Ez da guk nolnahi lasai-lasai erabil dezakegun landarea. Hain zuzen, kantitateak, neurriak eta hartualdiak erabat errespetatu behar dira. Hobe izaten da gaixotasun berarentzat gomendatutako beste edozein landare erabiltzea edo aditu baten gomendioei jarraitzea. Baiak janez gero, zorabioak, gonbitoak, beherakoak eta abar sor ditzake.

Kanpoko erabileran; asko erabiltzen da ospelen aurka. Hainbat modura egin daitezke: hostoekin egindako infusioarekin ospelak garbituta edo hanka edo eskuak bertan sartuta, gozatzeko. Horretarako, litro bat uretan 30-40 bat gramo hosto egosiko ditugu hamar minutuz, eta bertan egingo ditugu garbiketak. Horrek odoljariora bizkortzen duenez, ona da ospelentzat.

Lunbago eta ziatika kasuetan ere erabilgarria da.

OHARRA: Esan bezala, ez dugu gure kabuz erabiliko; eta, aurrez, aditu baten gomendioak entzungo ditugu. Haurrek eta haurdun dauden emakumeek ez hartzea komeni da. **KONTUZ, LANDARE HONEN BAIK TOXIKOAK DIRA-ETA.**

NOIZ ETA NOLA BILDU: Adarrak, hostoak eta baiak erabiltzen dira. Udazkenean eta neguan jasotzen dira.

Esan bezala, parasitua da, eta beste zuhaitz batzuetako adarretan aurkituko dugu.

OSAGAIK: Kolina, azetilkolina, bixkotoxina, tiramina. ■



Maddalen Sarasola

(errezeta)

Baratxuri fresko, urdaiazpiko eta almejaz nahastutako babak

Osagaiak

Egosi eta oliotan frejitutako 180 gramo baba
8 almeja handi
Baratxuri fresko 1
2 xerra handi urdaiazpiko
60 ml arrai salda
Perrexila

Prestaketa

Baratxuri freskoak pikatu eta zartagi batean olio pixka batekin jarri. Kolorea hartzen ari diren heinean, salda eta almejak gehitu. Almejak irekitzen hasten direnean, babak eta urdaiazpikoa gaineratu, eta bost bat minutuz berotzen utzi. Amaitzeko, nahi izanez gero, perrexila edota erromeroa gehitu daitezke. ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Min egin naiz orkatiletan.	Min hartu dut orkatiletan.
Etorri al dezakezu?	Etor al zaitezke?
Komunera joan dezaket?	Komunera joan al naiteke?

Euskaraz bai, umorea ere bai

- Ama, ama!
- Zer nahi duzu seme?
- Albiste on bat daukat... Datorren urtean ez duzu dirurik gasetatu behar izango ikastolako liburuetan!
- Eta hori? Bekaren bat eman dizute?
- Ez, maila errepikatuko dut.

Albisteak: Gmail, euskaraz

Azkenean, eta hiru urte luze pasatu ostean, Gmail, Google-ren posta zerbitzua, euskaraz daukagu; eta, zalantzarik gabe, oso berri ona da euskaldun eta euskaltzale guztiontzat.

Gutxi gorabehera, 1.500.000 euskal herritarrek dituzte Gmail kontuak. Erabiltzaile horietatik, 700.000 inguru dira euskaldunak, baina euskaraz konfiguratutakoak 40.000 inguru bakarrik dira. Helburua da ahalik eta gehienek aplikazio hori euskaraz konfiguratzea eta erabiltzea.

Horretarako, Configuración aukeran sartu (goian, eskuin aldean) eta General atalean Euskara aukeratu. Bukatzeko, eman Guardar.



Itsasondoko udalak Bikain euskararen kalitate ziurtagiria jaso du

Itsasondoko Udalak, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako beste erakunde eta enpresa batzuekin batera, Bikain euskararen kalitate ziurtagiriaren urrezko maila lortu du. Horrek esan nahi du euskara txertatuta dagoela udalean, eta lan-hizkuntza, zerbitzu-hizkuntza eta kudeaketa hizkuntza dela, hein handi batean. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak egin du egoeraren aurre-diagnostikoa, eta datu horiek berresteko Eusko Jaurlaritzaren talde ebaluatzaile batek aztertu ditu erakundeko euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa.

Ebaluazioa hiru ardatz nagusitan banatzen da: zerbitzu-hizkuntza, lan-hizkuntza eta kudeaketa. Hiruretan jasotako puntuaketa oso ona izan da, eta horrek ahalbidetu du ziurtagiria jasotzea. Prozedura guzti honetan, udalaren kudeaketaren indarguneak agerian jarri dizkigute, baita hobetzekoak ere. Beraz, hemendik aurrera eta geldialdirik egin gabe, UEMA-rekin elkarlanean, aurrerantz jarraituko dugu euskararen normalizazioaren mesedetan, orain arte bezalaxe.



Korrika badator

Bi urtez behin euskaldun guztiok korrika jartzen gaitu AEK-k, eta aurten Apirilaren 13an goizeko ordu txikitan (6:30ak aldera) pasatuko da Itsasondotik. Korrika pasatzen den bakoitzean egin ohi den bezala lantaldea mar txan jarriko dugu, eta zuk ere interesa izanez gero, lehen bilera otsailaren 13an, asteazkenean, 19:00etan udaletxean izango da. Klinka!



Kultur Agenda

OTSAILA

5, 12, 19, 26 Tipi Tapa paseoa | 17:00 plazan

8tik 15era Mendi Astea

- Otsailak 8, ostirala, Goierriko mendizale beteranoen erakusketa irekiera eta ikus-entzunezkoaren emanaldia | 19:00etan kulturgunean
- Otsailak 10, igandea, Mendi ibilaldia | 10:00etan plazatik abiatuta
- Otsailak 11,12,13,14 eta 15 Erakusketa |11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara Kulturgunean
- Otsailak 15, ostirala, Denbora izeneko leku bat Joseba Iztueta-ren ikusentzunezkoa | 19:00etan kulturgunean

11 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean

13 Herri Bizitza | 19:00etan udaletxean

14 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean

20 Guztion herria 18:15ean udaletxean

23 Ijito eguna eta ziklo-krosa.

27 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen

28 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen

MARTXOA

5, 12, 19, 26 Tipi Tapa paseoa | 17:00etan plazan

8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

9 Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko bazkaria Arbelaitz elkartearen

11 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean

13 Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean

14 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean

27 Memoria tailerra | 18:00etan jubilatuen elkartearen

28 Bingoa | 17:00etan jubilatuen elkartearen

APIRILA

2 Autismoaren eguna

2, 9, 16, 23, 30 Tipi Tapa paseoa | 17:00 plazan

8 Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean

10 Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean

11 Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean

13 Korrika | 06:30etan plazan

16 Odol ematea | 18:30-20:30 udaletxean

24 Memoria tailerra | 18:00 jubilatuen elkartearen

25 Bingoa | 17:00 jubilatuen elkartearen

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170
• **Gizarte Langilea**
• **Udal Arkitektoa**
• **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkarte 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 007635

Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ilepaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((41. zk.)) martia-apirila 2015

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhua Barandiaran
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatua elkarte
Danel Etxeberria
Eneritz Albizu
Enma Arrondo
Erkuden Mendizabal
Eskolako haurrak
Gaztelekua
Guraso elkarte
Haurreskolako hezitzaileak
Iker Mendizabal
Inaki Aizpuru
Itziar Pildain
Izaro Intsausti
Jone Etxeberria
Leire Laia
Maddalen Sarasola
Maddi Alberdi
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Ruth Gomez
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN: 2171-5572
SS-297-2010



Gipuzkoako Foru Aldundia

! GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA APIRILEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN